



Hizkuntza Proiektuak ikas- egoeren markoan



Uda Ikastaro honetan, ikastetxeetan komunikazio gaitasunaren irakaskuntza ikuspegi integral eta pragmatikotik diseinatu ahal izateko gakoak eskainiko dira.

Ira. 15 2025

Kod. H16-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 15 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

EAEren Hezkuntza Legeak eta gure kurrikulum ezberdinek aspalditik zehazten dute hizkuntza trebakuntzaren helburua komunikatzeko gaitasuna dela, eta gaitasun hori eleanitza izan behar dela ezinbestean. Komunikaziorako gaitasun hori garatzeko, legeetan ere jasota dago nolakoa izan beharko litzatekeen ildo metodologikoa: ekintzetara bideratutako irakaskuntza, eta ikas-egoeretan oinarritutakoa.

Planteamentu didaktiko hau guztiz bat dator Interakzionismo Soziodiskurtsiboak aspaldi proposatu izan dituen hizkuntzen irakaskuntzarako oinarri didaktikoekin, eta Uda Ikastaro honetan planteamendu horren eta ikas egoeren proposamenaren arteko lotura zuzenak erakutsi eta aztertuko dira, ikastetxeetan komunikazio gaitasunaren irakaskuntza ikuspegi integral eta pragmatikotik diseinatu ahal izateko.

Helburuak

EAEko hezkuntza curriculumak zehazten dituen ikas-egoerak Lehen Hezkuntzako geletara eramateko bideak proposatzea.

Gure lurraldeko hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntzak gainerako arloekin integratzeko proiektu integraletan trebatzea.

Lankidetzak



Programa

2025-09-15

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Roberto Mielgo Merino Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea
09:30 - 10:30	“Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia ikas-egoeren markoan” Jaione Ibarra Atutxa Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea Agurtzane Lauzirika Zugazaga Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea
10:30 - 11:30	“Konpetentzia eleaniztuna eta Hizkuntzen Trataera Bateratua “ Roberto Mielgo Merino Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Arlo eta hizkuntzen arteko irakaskuntza integraturantz” Itxaso Vazquez Villa Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea
13:00 - 14:00	TALDE LANA-Komunikazio proiektuak eta ikas-egoerak aztertu, moldatu, egokitu edota proposatu
14:00 - 14:15	Itxiera Agurtzane Lauzirika Zugazaga Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, BAM - Irakaslea

Zuzendaritza



Agurtzane Lauzirika Zugazaga

BAM-Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, irakasle


Deustoko Unibertsitatetik Filologia Hispanica Lizentziatua(1990). (DEA) Ikasketa Aurreratuak UPV-ean (2009) Psikodidaktikaren eremuan egindakoa. Ibilbide profesionalean, azken 34 urtetan BAM Irakasleen unibertsitate Eskolan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatan betetzen ari da. Irakasle bezala bere eremua Hizkuntzen Didaktika da. Interes guneak, bata, inplementazio ikuspuntutik, gelan sortzen den interakzioarekin eta nola bideratu prozesu hori zer ikusirik du eta, besteak, lehen hezkuntzan (gehien bat) perspektiba konstruktibista kontuan izanik, testu ulermenaren konpetentzia garatzeko, trebetasunen eskuratzearekin zer ikusirik du. Esperientzia handia eta harreman zabala du EAEko irakaskuntza zentroekin, Eusko Jaurlaritzako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-programetan. Berezi, irakurketa planaren “irakurtzen ikasi” eta “irakurriz ikasi” irakaskuntzan ulertzeko konpetentzia lortzeko zer-nola eginez aztertuz eta diseinatuz.

Irakasleak



Jaione Ibarra Atutxa

Jaione Ibarra Begoñako Andra Mari BAM Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle titularra da Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Sailean azken 29 urtetan. Euskal Filologian lizentziatua eta Hizkuntzalaritza Aplikatuan doktorea. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduatan diskurtsoaren funtzionamenduan eta ahozko eta idatzizko didaktikan aritzeaz gain, formakuntza ugari eman ditu ikastetxeetan, batez ere, testuen ulermenaren inguruan eta ahozko eta idatzizko testuen irakaskuntzan. Momentu honetan Matematika eta ulermenaren ardatz duen ikerketa proiektu batean ari da, Hezkuntza Sailaren ikerketa proiektu baten barnean.



Agurtzane Lauzirika Zugazaga

BAM-Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola, irakasle

Deustoko Unibertsitatetik Filologia Hispanica Lizentziatua(1990). (DEA) Ikasketa Aurreratuak UPV-ean (2009) Psikodidaktikaren eremuan egindakoa. Ibilbide profesionalean, azken 34 urtetan BAM Irakasleen unibertsitate Eskolan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatan betetzen ari da. Irakasle bezala bere eremua Hizkuntzen Didaktika da. Interes guñeak, bata, inplementazio ikuspuntutik, gelan sortzen den interakzioarekin eta nola bideratu prozesu hori zer ikusirik du eta, besteak, lehen hezkuntzan (gehien bat) perspektiba konstruktibista kontuan izanik, testu ulermenaren konpetentzia garatzeko, trebetasunen eskuratzearekin zer ikusirik du. Esperientzia handia eta harreman zabala du EAEko irakaskuntza zentroekin, Eusko Jaurlaritzako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-programetan. Berezik, irakurketa planaren “irakurtzen ikasi” eta “irakurriz ikasi” irakaskuntzan ulertzeko konpetentzia lortzeko zer-nola eginez aztertuz eta diseinatuz.



Roberto Mielgo Merino

Euskal Filologian Lizentziatua eta Literatura eta Literatura Zientzietan Aditu Graduondokoa Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikerketan hasi zuen bere ibilbidea, Literatura Zientzien arloan bi beka jarraian lortuaz, 1993 eta 1995 urteetan. 1996an BAMEko irakasleen hasierako prestakuntza programan sartu

zenetik, bere lana hizkuntzen irakaskuntzan zentratu da batez ere, testuinguru eleaniztunetan bereziki. Arlo horretan, bere lana hasierako eta etengabeko prestakuntzan eta hezkuntza zentroetarako aholkularitzan garatu du batez ere. Esperientzia handia eta harreman zabala du EAEko irakaskuntza zentroekin, bai Eusko Jaurlaritzako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-programetan, testu-gramatika eta horren irakaskuntzan bereziki, bai hezkuntza-zentroei hizkuntzen curriculumak diseinatzeko aholkularitzan eta Genevako Unibertsitateak garatutako sekuentzia didaktiko-ereduaren ezarpenean. EHUKo ELEBILAB Ikerketa Taldeko kide ere izan zen 2015tik eta 2021era bitartean. Argitalpen interesgarri batzuk: Mielgo, R., & Ocio, B. (2021). Hizkuntzen irakaskuntza eta irakasleen formakuntza: ibilia eta ibiltzekoa. In I. García-Azkoaga & L. Díaz de Guereñu (arg.). Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Vitoria-Gasteiz: UEU-EHU. Mielgo, R.; Lauzir



Itxaso Vazquez Villa

Itxaso Vazquez Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduatan. 2017an Lehen Hezkuntzan graduatu zen Hizkuntza Aniztasuna Eskolan aipamenarekin eta 2023an Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra bukatu zuen. Gaur egun UPV/EHUKo doktoregaia da hizkuntzaren didaktikaren arloan eta bere ikerketak hizkuntza gutxitua aintzat hartzen duen hezkuntza eleaniztuna du ikusmiran, bereziki Hizkuntzen Trataera Bateratuan eta hizkuntzen alderdi diskurtsibo eta testualean zentratuz.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-09-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	29,00 EUR
UIK euskaraz	-	41,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	35,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	29,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	35,00 EUR
Elkar	-	35,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia